

“Armairutik irtendako irakurketak” bihar Markinako Liburutegian

I. F. Markina-Xemein.

Markina-Xemeingo Herri Liburutegiak, Tolosakoarekin eta Ermuakoarekin batera, Gay eta Lesbianen Harrotasun Jaiarekin bat eginez irakurketa gida mardula prestatu du biharko. Liburutegira hurbiltzen direnek sexu-aniztasunaren inguruko liburuak, filmeak, musika edo web orriak batzen dituen eskaintza anitza izango du eskuragarri. Homofobiarekin amaitzeko helburuarekin, aukera sexual hau ikustaraztea da arduradunen gogoia.

Gida mardula

Armairutik irtendako irakurketa gidak 9 atal izango ditu. Alde batetik, haurrentzako liburu eta albumak batzen dituen hiru azpiatal daude -0-4 urte, 5-7 eta 8-12 bitartekoentzat-, eta hurrengokoa gazte literaturaren atala izango da. Ez fikziozko liburuak helduentzako eskuragarri ere izango dira, komikiak, bidai gidak edo autolaguntza liburuekin batera. Azkenik, gay mugimenduan erreferente den musika eta filmeak ere batu dituzte Markina-Xemeingo Herri Liburutegiko arduradunek. Baliabide guztiak kontsultagarriak izango dira eta erabiltzaileek maileguan etxera eramateko aukera izango dutela iragarri dute.